

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Mari Urkiola Loinaz

*Donostia,
Gipuzkoa
(1921-2010)*

Aurkibidea



Biografia



Ferrerenea baserri-sagardotegian jaioa, umetatik zaildu zen baserriko lanetan. Denborarekin bera egin zen sagardotegiaren kargu. Urkiola sagardotegia zabalik dago orain ere; hori bai, duela urte batzuk lekuz aldatu zuten. Eraikin berria egin zuten, baserritik gertu. Lehenengo Igaran eta ondoren Antiguan ibili zen eskolan Joxe Mari. Afrikan egon zen soldadu, Tetuanen. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu.

Zintak

DON-029

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-08
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Baserriko eta auzoko bizimodua lehen

- **Erref:** DON-029/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Baserriko bizimodua nolakoa zen, behi batzuk eta baratzea. 1930ean hiru etxe bakarrik zeuden auzoan.</p>

2. Baserri ingurua kale bihurtu da

- **Erref:** DON-029/004
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:03:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Illarraberri, Ixaberri eta Ferrene-berri etxeak bakarrik zeuden. Portuetxe, Errotaberri... Dena baserriak. Duela 40 urte hasi ziren ganadua kentzen eta etxeak egiten. Kale bihurtu da.

3. Baserritarrak lantegietara lanera

- **Erref:** DON-029/006
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:03:44. **Bukatu:** 00:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Hamar urte zituenean zein lantegi zeuden Antiguan: Lizarriturri, El Leon, Suchard. Añorgan, Rezola. Baserritar asko joan zen lantegietara lanera. Baserrian bizimodu gogorra.

4. Baserritarrak plazara tratuarekin

- **Erref:** DON-029/007
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:04:46. **Bukatu:** 00:05:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Baserritarrak plazara joaten ziren saltzera. Zaldi-karroarekin, astoarekin. Esnea saltzen. Konstituzio plazan, Bretxan.

5. Eskolara gutxi, etxean lana zegoelako

- **Erref:** DON-029/010
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:06:35. **Bukatu:** 00:08:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Eskolara ez zen asko joan. Igarako eskola publikoak, neska-mutilak elkarrekin. Maistra erdalduna. 10 urterekin Antiguan beste pare bat urtean.

6. Eskolatik bueltan, aitari laguntzen

- **Erref:** DON-029/012

- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:08:28. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Eskola. Maistra. Fundamentu gutxi, etxeko lanak ez zituen egiten, baserriko lanak zeuden eta. Aitari laguntzen, mutikotan. Soldadu joan arte egon zen baserrian.

7. Ama Konstituzio plazara, zaldi-karroan

- **Erref:** DON-029/014
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:09:43. **Bukatu:** 00:12:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Baratzerako afizioa izan du beti. Barazkiak errazago saltzen ziren lehen orain baino. Merke. Ama joaten zen plazara, zaldi-karroan, Konstituzio plazara. Aitak ez zuen baserritik kanpo lan egiten: baratzea eta abereak. Artoa eta babarruna batera. Artoa ganaduarentzat, errotan irinduta. Talorik ez zuten egiten, eta ogia erosi.</p>

8. Hamar urterako bazuen bizikleta

- **Erref:** DON-029/016
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Umetako jolasa: pilota. Orduan ez zegoen futbolerako afiziorik. Bizikleta. Hamar urterako bazuen bizikleta. Orbea berria ekarri zion aitak gero. Eibarren egindakoa.

9. Ehundik gora urteko sagardotegia

- **Erref:** DON-029/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardoa egiten eta saltzen beti ezagutu du: ehun urtetik gora ditu Urkiola sagardotegiak. Hiruzpalau upela betetzen zituzten, 15.000 edo 20.000 litro, 1932. urtean. Ez zuen norberak hartzen sagardoa. Basoa bost zentimoan; 25 zentimo botilak.

10. Sagar motak eta sagardoa

- **Erref:** DON-029/019
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:18:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Sagarra, etxean bazuten nahikoa. Orain kanpotik ekartzen dute. Sagar motak: txalaka, Goikoetxe, Bixkaia, txori-sagarra... Orain askoz berdinagoa egiten da sagardoa. Baldearekin betetzen zuten upela, lan ederra!</p>

Transkripzioa

-Eta hori prozesua, sagarrak, nundik ekartzen zian?
-Sagarrak, ordun? Sagarrak hemen nahikua izaten zan. Bai zeatikan ez zan oan bezela iten ta, oain sikiera oain juten zea ta, eozein saardoteitan ta, zenbat dazka ta harrek hogei upela dauzka ta bestiak berrogei baazka ta, betetzeko kanpotik ekartzen dute. Baiño hemen ordun, gue estiloako nahikua zeatzen zan, hiru-lau bat basarritan, nahiko saarra izaten zan. Ta etxian'e, etxian'e bastante saarra izaten zan.
-Eta ze sagar klase? Ze sagar klase?
-Sagarra? Bueno, ordun zan 'txalaka' asko, 'urdaniturriya', eta bestea, 'goiko etxe' sagarra, ta 'bixkaiya' re bai, eta beste, 'txorixaharra', 'errege saar' hori ez, 'errege saar' hori geoztikan hasi zan, zeatzen, 'reineta' hori, 'errege saar' hori bai. Geo hasi zan. Bai. Bastante bariatua, bai.
-Ta batzuk mikatzak, eta bestiak gozuak? Batzuk mikatzagoak izango dia, sagar batzuk?
-Ah mikatzaguak eta bestiak, bai, bai.
-Komeni nahastia, bi klase? Ondo irteteko?
-Klaro, klaro. Ordun, ordun pasatzen zan, zuk iten zenun, toki batetik ekartzen zenun ta igual, hua jota sartzen zenun ta, gozuaua ateatzen zitzaizun ta hurrungo tandakua igual gaziyoua, txalakana. Oain iten da igual, igualoua. Jendiak esaten du: "oan sagardua igualoua iten da". Klaro oain daude makinaiyak, tolarian oain sagarra gozua, mikatzana, ta denak in, eta gero bonbakin, partitzen dezu upeleta. Ta ya mezklaturia dijua hua, baiño lehen iten badezu zea, txalaka saarra, hua hartu ta baldia, baldiakin betetzen genun, baldiakin upela betetzen. Oh, lana, bueno! Lana in deu... Oain ez da, saardua itia ez da lana, lana ez da.

11. Sagarra txikitu eta dolarera

- **Erref:** DON-029/020
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:18:33. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Dolarea orain egongela bihurtua dago. Behiak kendu, eta etxea goitik behera berritu zuten. Eskuz txikitzen zuten sagarra; 1932an jarri zuten motorra. Eraikin berria egin zuten, sagardoa egiteko. Sagarra goitik bota, makinan txikitu eta dolarera. Han prentsatu, eskuz estutu eta sagar ura behera joaten zen.

12. Nola jakiten den sagardoa prest dagoen

- **Erref:** DON-029/022
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:21:29. **Bukatu:** 00:23:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Zortzi egunean uzten zuten sagar ura irakiten. Gozoa joatean itxi behar da upela. Probatu egiten du berak, baina batzuek pospoloarekin jakiten dute. Hamabost egunean zegoen saltzeko moduan, baina botilaratzeko bi hilabete pasatu behar ziren.

13. Sagardotegiko lehengo giroa

- **Erref:** DON-029/024
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:25:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Gizonak joaten ziren sagardotegira, emakumerik ez. Egun osoa egiten zuten batzuek, edaten. Sardina-zaharra jaten zen asko, txuletarik ez. Etxetik ere eramaten zuten jana batzuek.

14. Batzuetan sagardotegia goizaldera arte irekita

- **Erref:** DON-029/026
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:25:11. **Bukatu:** 00:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Tokara jokatzen zuten, kartetara ere bai, sagardotegira joandakoek.

Bertsolariak joaten zirenean, goizaldera arte. Txirrita eta. Sagardotegiak hamarretan zuen ixteko ordua, baina askotan ez zen betetzen: guardak ere sagardoa edaten geratzen ziren.</p></div>

- **Erref:** DON-029/031 - **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:29:39 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneneko lantegiak

Osabak Suchard lantegian egiten zuen lana, eta txokolatea ekartzen zien mutikotan. Tabletak.

- Osaba Suchard txokolatetan? - Bai. - Eta zuek orduan txokolatia jango zenuten? - Bueno, bueno, ooo... Ekartzen zun pakete batzuk, joe. Gu mutil koskorrak zai egoten giñan harei patrikan sartzeko: "osaba, txokolatia hor dao?", ta "bai" ta kaska kaska kaska kaska, ez ogik ta zea're. - Ta zer zian, bonboiak ala tabletak? - Tabletak, tabletak. - Tabletak? - Tabletak, "chocolate milka" hori, tableta hoik hartuta, hola lodi-lodiya, puska bat, joe...

- **Erref:** DON-029/033 - **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:30:03. **Bukatu:** 00:30:58 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Zer bazkaltzen zuten. Zopa, eta babarruna urte guztian. Denak batetik, koilararekin, txandaka.

Transkripzioa

- Bazkaldu?
- Bai.
- Bueno, jateko plato gutxi: sopa, ta geo pues babarruna urte guztin. Plato babarruna "y vale". Ta gaiñea zea iten genun e? Fuente batetik; bota fuente batea babarruna ta bost-sei lagun [...] ta kutxariakin. Eta zuk zuk beste kolpe bat eta hurrena bestiak eta zuk itxoin, txanda etortzian.
- Azkar ibili behar!
- Azkar, gosiak baldin bazauden...

17. Txerria hiltzen zuten, etxerako

- **Erref:** DON-029/035
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:31:06. **Bukatu:** 00:32:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Txerria ez zuten beti izaten. Etxerako hiltzen zuten. Txorizoa, odolkiak, manteka. Amak egiten zuen hori. Hil, berriz, aitak, lagunekin. Utzi egin zioten hiltzeari, txerrikiak ez zitzaizkielako asko ere gustatzen.</p>

18. Zein arrain jaten zuten etxean

- **Erref:** DON-029/036
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:32:22. **Bukatu:** 00:34:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Jaten zuten arraina: txitxarroa, igande berezietan. Bi erreal angula kiloak, Aginagakoak. Antxoa baino gehiago sardina zaharra. Lehen ez zuten legatzaren kokotea jaten. Bisigua, Gabonetan.

19. Gabonetako otordu bereziak

- **Erref:** DON-029/037
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:34:26. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Gabonetan zer jaten zen. Aza olioak. Bisigua. Haragia. Konpota.</p>

Transkripzioa

-Gabonetan, ze gehio jaten zan?

-Gabonetan? Gabonetan zan, tipikua zan, 'azoliyuak', ezautzen dezu hori? Ez dezu ezautuko.

-Ez baiña, entzunda daukat.

-[...] Eltzeka bat aza eosi, ta, oliyo gordiña bota gaiñea ta, geo ez dakit ze botatzen [...] aza oliyuakin, platerka bat hoi, aza. Gero, pues, zea hori, bixigu hori, ta geo pues, zea, haragiya, haragiya o arkumiana o, o txerriyana o, behiyana o, segun ze haragi klase, hoi.

-Eta postre?

-Postria zea, este, nola da hori? Macedonia esatea nijuan ez, macedonia ez, konpota, konpota.

20. Soldadutza Afrikan

- **Erref:** DON-029/040
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:37:12. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza Afrikan egin zituen: lau urte. Tetuan, Ceuta, Melilla. Bizimodu gogorra, hasieran. Txerri-jana ematen zieten. Dirua zuena hobeto ibili zen, merke zegoelako jana tabernetan. Kamioiarekin hasi zenean, hobeto. Etxera ere joan zen sei aldiz. 1942.</p>

21. Igandetan dantzara ala bizikletan ibiltzera

- **Erref:** DON-029/045
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:42:43. **Bukatu:** 00:44:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Afizioak: bizikleta eta pilota. Igandetan erromerietara joaten ziren edo bizikletan ibiltzera. Erromeriara oinez. San Pedro egunean, Igeldora. Hernanira tranbian. Dantza soltea eta helduta ere bai. Neska batzuek ez zuten nahi, bekatua zela eta.

22. Auzoan zazpi-zortzi sagardotegi

- **Erref:** DON-029/047
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:44:36. **Bukatu:** 00:48:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Txikitatik hasi zen sagardoarekin, eta ez zuen kanpoan lanik egin. Aitari laguntzeko gelditu zen, eta gero bere kargu geratu zen sagardotegia. Auzoan 1938an zazpi-zortzi sagardotegi zeuden: Errotaberri, Urresti, Portuetxe, Urkiola, Aiestaran, Mendizabal, Zubizarreta, Garmendia. Bi taberna zeuden.

23. Musean ikasi ez

- **Erref:** DON-029/048
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:48:34. **Bukatu:** 00:49:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>16-17 urterekin hasi ziren tabernara joaten. Tutean jokatzeko zuten. Musean ez du ikasi, gezurak esaten ez daki eta.</p>

Transkripzioa

- Zu juten zifan tabernara?
- Tabernara? Bai. Taberna, bueno bai, hamasei bat urte ezkeo, hamazpapi ezkeoz hasi gifan tabernara joaten; baxoerdi batzuk edan ta ibilli.
- Ta kartetan?
- Bai.
- Bai? Zertara jolasten zenuten? Musa?
- Ez, tutian, musian ez dakit nik.
- Ez? Tutian.
- Ez det ikasi. Horregatik esaten diyot Luisitori nik,"ez det ikasi zeatik gezurra esaten ez dakit eta", esaten diyot nik Luisitoi.
- Jakin in behar da gezurra esaten.

24. Herri-kirolek ez zuten oraingo indarrik

- **Erref:** DON-029/050
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:49:34. **Bukatu:** 00:51:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Herri-kirolak 50eko hamarkadan hasi ziren indartzen. Idi-probak eta ahari jokoa bakarrik izaten ziren aurretik. Aizkora, harri jasotzea... gero hasi ziren; urtean behin izaten zen, orain igandero dago zerbait.</p>

25. Hondartzan bainua hartzea gustatu

- **Erref:** DON-029/055

- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:56:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Hondartzara joateko afizioa zuen. Aste barruan aitak ez zion uzten, eta igandetan. Bizikletan bertaraino. Bainatu, eta buelta. Lagunei ez zitzaien gustatzen. Itsasoan ikasi zuen igerian, bere kasa. Erreka zikina egoten zela dio. Ceutan soldadu zegoela ere joaten zen hondartzara.</p>

26. Hondartzara askoz gutxiago joaten zen jendea lehen

- **Erref:** DON-029/057
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 00:58:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Lehen jendea ez zen orain beste joaten hondartzara. Azal zuria zegoen modan. Eguzkiaren ihesi ibiltzen ziren emakumeak.

27. Ondarretako kartzelako kontuak

- **Erref:** DON-029/059
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:59:29. **Bukatu:** 01:01:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Ondarretako kartzelako gorabeherak, bera eskola mutikoa zela. Loiolatik joaten ziren erreleboa egitera, eta handik eramaten zuten janaria ere. Kafe ontzi handi bat ere bai, tranbian.

28. Gerra garaiko giroa

- **Erref:** DON-029/063
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:02:28. **Bukatu:** 01:03:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian, auzotarren erdia joan zen ihesi. Jendeak ez zuen uste gerrak hain luze joko zuenik. Orduko giro nahasia.

Transkripzioa

- Asko, barriyo hontatikan bertatikan, barriyo txiki hontatikan, erdi-erdiya jun zan iya, erdi-erdiya joan zan. Zea, pixuak hainbat hutsak gelditu zian oain.
- Ta ze gogoratzen dezu zuk? Zu mutikua ziñan.
- Ni?
- Bai, zu gaztetxua, ez? Mutiko...
- Ni hamabost-hamasei urte.
- Ta ze gogoratzen dezu garai hortakua?
- Garai hortakuak, gauza asko hor, garai hartan. Ia jendiak jendiak ez zun uste hau honbesteaiñoko jungo zanikan, hau jendia lehenbizi hasi zanian, uste zun goizian pixkat hasi ta atsaldeako ya bukatuko zuela, ta honek in zuen luzetu, luzetu in zian gauzak. Eta geo oponiyuak'e era hortan libre, bakizu batzuk klase batea bestiak bestea, eta hemen batzuk presuak zaudenak hil zituelako eta bestiak etxetik hartu ta hil zituelako, ta hasi zian ta, ya gauzak...
- (E) - "... lo que fue... crearse unos odios".
- Gauzak okertu.
- Bai, gerrak gauza onik ez dakar.
- (E) - Ez, gerra tristia da.

29. Parte Zaharrera basoerdiak hartzera

- **Erref:** DON-029/068
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:06:37. **Bukatu:** 01:08:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Emaztea auzoan bertan ezagutu zuen, ataundarra bada ere. Aita mikeletea zuen, eta Antiguara joan ziren bizitzera. Hiru ahizpak ile-apaindegia jarri zuten. Parte Zaharrera joaten zen asko, bizikletan. Zapata-garbitzailea. Txikitoak.</p>

30. Basoerdia 25 zentimora; zigarroak

- **Erref:** DON-029/070
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:08:35. **Bukatu:** 01:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

<p>Basoerdiak zenbat balio zuen. 25 zentimo, gerra ondoan. Ardoa, tabernan. Txikitoak, tabernaz taberna. Zigarroa erretzen zuten: Ideales. Lucky eta Camel.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com